ZINEMATEKA

# Icíar Bollaín

## Errealitatearekiko konpromisoa

## Compromiso con la realidad



© Pedro J Pacheco

2022 URTARRILAREN 12TIK MARTXOAREN 24RA
DEL 12 DE ENERO AL 24 DE MARZO

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

# Icíar Bollaín
# Errealitatearekiko konpromisoa

Zinematekak 2022ko programazioa irekiko du Iciar Bollaíni eskainitako ziklo batekin, arrakala ireki duten eta espainiar zinemak nazioz gaindiko izaera hartu duen emakumezko zuzendarien belaunaldi baten paradigma gisa.

Iciar Bollaínez hitz egitea publikoarekin bat egiten duten istorioekiko bokazioaz hitz egitea da; istorio horien bidez zuzendaria modu enpatikoan gerturatzen baita pertsonen bizitzetara. Artifiziorik gabe egiten du eta irismen globaleko gai eta arazoen inguruan argi apur bat emateko asmoz: indarkeria, matxismoa edo ekologismoa, esaterako. Zinemako lanbideaz duen jakin-mina eta lilura nabarmentzen dira zuzendari honengan. Iciar Bollaín gizartearekin konpromisoa duen emakumea da, zinema kontzientziaziorako eta gizartea aldatzeko tresna dela uste duena. Sororitatea eta ahalduntze femeninoa beti lotu izan dira bere lanarekin, gaur egun bezain ospetsua ez zenean ere bai.

Filmografia zabala da horren adierazgarri, ziklo honetan ikusgai duguna, hasi bere lehenengo lanarekin *Hola, ¿estás sola?* (1995), non bi neska gazteren bizitzaren berri ematen digun, zeinek inolako afekturik gabeko iragana eta zalantzaz beteriko orainaldia eta etorkizuna dituzten.

Film luze horrekin hasi zuen Icíar Bollaínek emakumeak protagonista dituen istorioak, esaterako, *Flores de otro mundo* (1999), *Te doy mis ojos* (2003) eta *Mataharis* (2007). Horietan guztietan emakume izate hutsagatik jasaten diren egoera zaurgarriak ageri dira.

*También la lluvia* (2010) ildo horretatik urrundutako lana dela dirudi hasiera batean, baina zuzendariak berak esaten duen bezala, pertsonaien zinema da, baina handiagoa. Bolivian errodatu zen eta Oscar sarietarako aurre-hautatu zuten; lan horretan hasi zen Paul Lavertyrekin lankidetzan eta elkarrekin egin dituzte, harrez gero, *Katmandú. Un espejo en el cielo* (2011), *El olivo* (2016) eta *Yuli* (2018).

*La boda de Rosa* (2020) filmean Bollaínek lehenengo film luzean planteatu zuen espiritu librea berreskuratu du, Candela Peña da protagonista, eta norbera den bezalakoa izateko egiten du aldarri, norbere bizitzaren jabe izateko eta norbere zorionaren erantzule ere bai. Zikloa amaitzeko azkenengo film luzea izango dugu ikusgai, *Maixabel* (2021), protagonisten (biktimaren eta borreroaren) ibilbidea eta bidaia pertsonala, aurrez aurre jarri eta beraien sentimenduez hitz egitera daramatzan bidaia.

# Icíar Bollaín
# Compromiso con la realidad

La Zinemateka abre la programación de 2022 con un ciclo dedicado a Iciar Bollaín, como paradigma de una generación de directoras que han abierto brecha y con las que el cine español ha adquirido un carácter transnacional.

Hablar de Icíar Bollaín es hablar de vocación por contar historias que conectan con el público, historias con las que la directora se acerca de una manera empática a la vida de las personas. Lo hace sin artificios y con la intención de aportar algo de luz a cuestiones y problemáticas de alcance global como la violencia, el machismo o el ecologismo. Si hay algo que destaca en la realizadora es su curiosidad y su fascinación por el oficio del cine. Ante todo, Icíar Bollaín es una mujer comprometida con la sociedad, que ve en el cine un instrumento de concienciación y cambio social. Sororidad y empoderamiento femenino se han relacionado con su trabajo incluso antes de que adquirieran la notoriedad actual.

Todo ello se traduce en una filmografía extensa que este ciclo aborda desde su ópera prima *Hola, ¿estás sola?* (1995) que muestra las vidas de dos chicas jóvenes con un pasado carente de afecto y un presente y futuro inciertos.

Con este largometraje Icíar Bollaín inicia una serie de historias protagonizadas por mujeres como *Flores de otro mundo* (1999), *Te doy mis ojos* (2003) y *Mataharis* (2007), en las que se visibilizan diferentes situaciones de vulnerabilidad por el hecho de ser mujeres.

*También la lluvia* (2010) puede parecer a priori alejada de esa línea pero sigue siendo, como dice la propia directora, un cine de personajes pero más grande. Rodada en Bolivia y preseleccionada para los Óscar, supone el comienzo de la colaboración con Paul Laverty que les llevará de la mano en trabajos como *Katmandú. Un espejo en el cielo* (2011), *El olivo* (2016) o *Yuli* (2018).

En *La boda de Rosa* (2020), Bollaín recupera parte del espíritu libre que plantea con su primer largometraje, en la figura de una Candela Peña, que en parte es un canto a ser una misma, a ser dueña de tu propia vida y responsable de tu propia felicidad. El ciclo finaliza con su último largometraje hasta la fecha, *Maixabel* (2021), un recorrido y un viaje personal que llevan a cabo los protagonistas, víctima y verdugo, y que les lleva a sentarse cara a cara y hablar de sus sentimientos.

| EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA | FILMA / PELÍCULA |
|---|---|---|
| **12** URTARRILA ENERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **HOLA, ¿ESTÁS SOLA? (1995)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 92'. ES |
| **13** URTARRILA ENERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **HOLA, ¿ESTÁS SOLA? (1995)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 92'. ES |
| **19** URTARRILA ENERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **FLORES DE OTRO MUNDO (1999)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 108'. ES |
| **20** URTARRILA ENERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **FLORES DE OTRO MUNDO (1999)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 108'. ES |
| **26** URTARRILA ENERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **TE DOY MIS OJOS (2003)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 109'. ES |
| **27** URTARRILA ENERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **TE DOY MIS OJOS (2003)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 109'. ES |
| **2** OTSAILA FEBRERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **MATAHARIS (2007)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 100'. ES |
| **3** OTSAILA FEBRERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **MATAHARIS (2007)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 100'. ES |
| **9** OTSAILA FEBRERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **TAMBIÉN LA LLUVIA (2010)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 103'. ES |
| **10** OTSAILA FEBRERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **TAMBIÉN LA LLUVIA (2010)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 103'. ES |
| **16** OTSAILA FEBRERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **KATMANDÚ, UN ESPEJO EN EL CIELO (2011)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 104'. ES |
| **17** OTSAILA FEBRERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **KATMANDÚ, UN ESPEJO EN EL CIELO (2011)**<br>Z/D: Icíar Bollaín \| 104'. ES |

**Puedes descargar este folleto en azkunazentroa.eus / Liburuxka hau azkunazentroa.eus helbidean deskarga dezakezu.**

| EGUNA / DÍA | ORDUA / HORA | FILMA / PELÍCULA |
|---|---|---|
| **23** OTSAILA FEBRERO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **EN TIERRA EXTRAÑA (2014)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 72'. ES |
| **24** OTSAILA FEBRERO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **EN TIERRA EXTRAÑA (2014)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 72'. ES |
| **2** MARTXOA MARZO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **EL OLIVO (2016)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 100'. ES |
| **3** MARTXOA MARZO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **EL OLIVO (2016)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 100'. ES |
| **9** MARTXOA MARZO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **YULI (2018)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 115'. ES |
| **10** MARTXOA MARZO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **YULI (2018)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 115'. ES |
| **16** MARTXOA MARZO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **LA BODA DE ROSA (2020)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 100'. ES |
| **17** MARTXOA MARZO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **LA BODA DE ROSA (2020)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 100'. ES |
| **23** MARTXOA MARZO<br>ASTEAZKENA / MIÉRCOLES | 17:00 | **MAIXABEL (2021)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 115'. ES |
| **24** MARTXOA MARZO<br>OSTEGUNA / JUEVES | 19:30 | **MAIXABEL (2021)**<br>**Z/D: Icíar Bollaín** \| 115'. ES |

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira (JB, Gaztelania)
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegia eta golem.es

Todas las proyecciones son en Versión Original (VO, Castellano)
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en golem.es

**5€ [4€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**
**+ info: azkunazentroa.eus**

### ETA GAINERA MEDIATEKA BBK-N...

Zinematekaren programazioa Mediateka BBK-ra zabaldu da, Icíar Bollaínen lanari buruzko ffilmak eta liburuak kontsultatu eta maileguan eskatu ahal izateko. Informazio gehiago 17. orrialdean.

### Y ADEMÁS EN LA MEDIATEKA BBK...

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestado películas y libros en torno a la obra de Icíar Bollaín. Más información en la página 17.

# HOLA, ¿ESTÁS SOLA? (1995)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**URTARRILAK 12, ASTEAZKENA**
12 DE ENERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**URTARRILAK 13, OSTEGUNA**
13 DE ENERO, JUEVES
**19:30**

Hogei urteko bi neskaren bidaia eta adiskidetasunaren istorioa; afekturik gabeko iragana dute biek, orainaldian ez dute galtzeko ezer eta etorkizuna beraiek nahi bezain irekia da. Bidaia horretan dena partekatuko dute. Olaf ere bai, bere hizkuntza besterik hitz egiten ez duen errusiar bat.

Historia de un viaje y una amistad entre dos chicas de veinte años que tienen en común un pasado sin afectos, un presente en el que no tienen nada que perder y un futuro todo lo abierto que quieran. Durante su viaje lo compartirán todo. Incluido Olaf, un ruso que no habla más que su idioma.

92'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín
**A/R:** Silke, Candela Peña, Arcadi Levin, Álex Angulo, Elena Irureta, Daniel Guzmán, Pedro Miguel Martínez, Antonio de la Torre, Icíar Bollaín

# FLORES DE OTRO MUNDO (1999)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**URTARRILAK 19, ASTEAZKENA**
19 DE ENERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**URTARRILAK 20, OSTEGUNA**
20 DE ENERO, JUEVES
**19:30**

Patricia dominikarra da, etxe baten bila dabil eta Madrilen legez kanpoko etorkin gisa lortu ezin duen segurtasun ekonomikoa ere bai. Milady kubatarra da, hogei urte ditu eta mundua ikusi nahi du. Marirrosi lana eta etxea dituen bilbotarra da, erabateko bakardadean bizi da, Alfonsok, Damiánek eta Carmelok dutena bezalako bakardadean; Santa Eulalian bizi dira hirurak, ezkontzeko adineko emakumerik eta etorkizunik ez duen herri batean. Herriko gizonezko ezkongabeek antolatutako festa bati esker, elkar ezagutu eta elkarbizitzen historia gazi-gozoa hasi dute, batzuetan elkarbizitza ezinezkoa izan arren.

---

Patricia, una dominicana, busca un hogar y una seguridad económica que su situación de inmigrante ilegal no le permite alcanzar en Madrid. Milady, una cubana de veinte años, sueña con recorrer el mundo. Marirrosi, una bilbaína con casa y trabajo, vive en la más completa soledad, una soledad como la que comparten Alfonso, Damián y Carmelo, vecinos de Santa Eulalia, un pueblo sin mujeres casaderas ni futuro. Gracias a una fiesta organizada por los solteros del pueblo, unos y otras se conocen y comienza una agridulce historia de convivencias a veces imposibles.

108'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín, Julio Llamazares
**A/R:** José Sancho, Lissete Mejía, Luis Tosar, Marilyn Torres, Chete Lera, Elena Irureta, Amparo Valle, Rubén Ochandiano, Chiqui Fernández, Antonio de la Torre

# TE DOY MIS OJOS (2003)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**URTARRILAK 26, ASTEAZKENA**
26 DE ENERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**URTARRILAK 27, OSTEGUNA**
27 DE ENERO, JUEVES
**19:30**

Gau batez Pilarrek etxetik ihes egin du. Lau gauza eta bere semea, Juan, besterik ez daramatza. Antoniorengandik ihesi doa, tratu txarrak ematen dizkion senarrarengandik ihesi; 9 urte daramatzate elkarrekin ezkonduta. Antonio berehala joan da Pilarren bila. Pilar du bere eguzkia, dioenez, eta, gainera, “begiak eman dizkio”.

---

Una noche de invierno, Pilar sale huyendo de su casa. Lleva consigo apenas cuatro cosas y a su hijo Juan. Escapa de Antonio, un marido que la maltrata y con el que lleva 9 años casada. Antonio no tarda en ir a buscarla. Pilar es su sol, dice, y además, “le ha dado sus ojos”.

109’. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín, Alicia Luna
**A/R:** Laia Marull, Luis Tosar, Candela Peña, Rosa María Sardà, Kiti Mánver, Elisabet Gelabert, Sergi Calleja, Nicolás Fernández Luna, Chus Gutiérrez, Elena Irureta, Dave Mooney, Antonio de la Torre, Francesc Garrido, Roberto Álamo.

# MATAHARIS (2007)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**OTSAILAK 2, ASTEAZKENA**
2 DE FEBRERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**OTSAILAK 3, OSTEGUNA**
3 DE FEBRERO, JUEVES
**19:30**

Carmen, Inés eta Eva detektibe pribatuak dira, baina ez dute kapelarik eta pistolarik; aldiz, erosketak egiten dituzte, pixoihalak aldatzen dituzte eta ahaleginak egiten dituzte bikoteari ondoan eusteko. Lanean besteren sekretuen bila ibitzen diren arren, hirurak ohartuko dira ez direla gai izan beraien gezur batzuk ikusteko, eta hobe dela egia batzuk ezkutuan gordetzea.

---

Carmen, Inés y Eva son detectives privados pero no llevan sombrero ni pistola, sino que hacen la compra, cambian pañales y tratan de conservar a su pareja. Mientras trabajan desvelando secretos ajenos, las tres descubrirán que hay mentiras propias que no han sabido ver y verdades que es mejor no revelar.

100'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín, Tatiana Rodríguezs
**A/R:** Najwa Nimri, Nuria González, María Vázquez, Tristán Ulloa, Diego Martín, Antonio de la Torre, Fernando Cayo

# TAMBIÉN LA LLUVIA (2010)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**OTSAILAK 9, ASTEAZKENA**
9 DE FEBRERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**OTSAILAK 10, OSTEGUNA**
10 DE FEBRERO, JUEVES
**19:30**

103'. Espainia / España
**G:** Paul Laverty
**A/R:** Luis Tosar, Gael García Bernal, Karra Elejalde, Juan Carlos Aduviri, Raúl Arévalo, Cassandra Ciangherotti, Carlos Santos, Dani Currás, Vicente Romero. .

Cochabamba, Bolivia. 2000. urtea. Sebastián (Gael García Bernal) eta Costa (Luis Tosar) Kristobal Koloni eta Amerika aurkitu izanari buruzko film bat egin nahian dabiltza. Sebastián da zuzendaria eta pertsonaia desmitifikatu egin nahi du, gizon anbiziotsu eta eskrupulurik gabe bat erakutsi nahi du; Costa ekoizlea da eta daukaten aurrekontu xumera egokitu nahi du filma, besterik ez, hori da bere nahi bakarra, eta horregatik aukeratu du Bolivia, Hispanoamerikako herrialderik merkeenetako bat izateaz gain, indigena gehien dituena ere badelako. Cochabamban errodatuko dute filma; hiri horretan, ura pribatizatzeak eta multinazional bati saltzeak ondoeza sortuko du herritarren artean eta, ondorioz, zoritxarrez hain ospetsua izandako Uraren Boliviako Gerra hasiko da (2000. urteko apirila).

---

Cochabamba, Bolivia. Año 2000. Sebastián (Gael García Bernal) y Costa (Luis Tosar) se han propuesto hacer una película sobre Cristóbal Colón y el descubrimiento de América. Mientras que Sebastián, el director, pretende desmitificar al personaje presentándolo como un hombre ambicioso y sin escrúpulos; a Costa, el productor, sólo le importa ajustar la película al modesto presupuesto del que disponen; precisamente por eso elige Bolivia, por ser uno de los países más baratos y con mayor población indígena de Hispanoamérica. La película se rueda en Cochabamba, donde la privatización y venta del agua a una multinacional siembra entre la población un malestar tal que hará estallar la tristemente famosa Guerra Boliviana del Agua (abril del año 2000).

# KATMANDÚ, UN ESPEJO EN EL CIELO (2011)

## Z/D: Icíar Bollaín



**OTSAILAK 16, ASTEAZKENA**
16 DE FEBRERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**OTSAILAK 17, OSTEGUNA**
17 DE FEBRERO, JUEVES
**19:30**

Laia maistra kataluniar gazte bat da eta Katmandura joan da eskola batean lan egitera. Han, miseriaz gain, hezkuntza-arloan egoera negargarria dagoela ikusiko du, behartsuenak baztertzen dituen sistema dela. Bere egoera legeztatzeko ezkondu egingo da, intereseko ezkontza batez, eta proiektu pedagogiko anbizio handiko bat jarriko du abian hiriko txabola-auzoan. Hala ere, laster ohartuko da laguntza behar duela proiektua burutzeko. Aldi berean, eta ezustean, bere senarraz maiteminduko da. Bertako maistra gaztea den Sharmilaren eskutik, sakon ezagutuko du Nepaleko gizartea eta bere burua ere bai.

---

Laia, una joven maestra catalana, se traslada a Katmandú para trabajar en una escuela. Allí, además de la miseria, descubre un panorama educativo desolador que excluye a los más necesitados. Tras contraer, a su pesar, un matrimonio de conveniencia para legalizar su situación, emprende un ambicioso proyecto pedagógico en los barrios de chabolas de la ciudad, aunque pronto se da cuenta de que necesita ayuda para hacerlo realidad. Al mismo tiempo, de forma inesperada, se enamora de su marido. Siguiendo a Sharmila, una joven maestra nativa, llega a conocer a fondo la sociedad nepalí e incluso a sí misma.

104'. Espainia / España
**G:** Paul Laverty
**A/R:** Verónica Echegui, Sumyata Battarai, Norbu Tsering Gurung

# EN TIERRA EXTRAÑA (2014)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**OTSAILAK 23, ASTEAZKENA**
23 DE FEBRERO, MIÉRCOLES
**17:00**

**OTSAILAK 24, OSTEGUNA**
24 DE FEBRERO, JUEVES
**19:30**

Dokumental honetan Espainiako krisi ekonomiko handiaren ondorioz atzerrira joan diren gazte emigrante espainiarren egoera aztertu du, hain zuzen ere, Edinburgora etorkizun hobeagoaren bila joan diren batzuena.

---

Documental que aborda el caso de los jóvenes emigrantes españoles que, debido a la profunda crisis económica en España, se han ido al extranjero, en este caso a la ciudad de Edimburgo, en busca de un futuro mejor.

72'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín.

# EL OLIVO (2016)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**MARTXOAK 2, ASTEAZKENA**
2 DE MARZO, MIÉRCOLES
**17:00**

**MARTXOAK 3, OSTEGUNA**
3 DE MARZO, JUEVES
**19:30**

Almak 20 urte ditu eta bere aitona miresten du, hainbat urtez hitzik egin gabe dagoen gizona. Aitonak jateari uko egiten dionean, Almak zuhaitz bat berreskuratzea erabakiko du: aitonaren nahiaren aurka familiak saldu zuen mila urte baino gehiagoko olibondoa. Xede horretarako, osabaren laguntza behar du, krisiaren biktima bera, bai eta Rafa lagunarena eta herri osoarena ere. Olibondoa Europako zein txokotan dagoen jakitea da arazoa.

---

Alma tiene 20 años y adora a su abuelo, un hombre que lleva años sin hablar. Cuando el anciano se niega también a comer, la chica decide recuperar el árbol milenario que la familia vendió contra su voluntad. Pero para ello, necesita contar con la ayuda de su tío, una víctima de la crisis, de su amigo Rafa y de todo el pueblo. El problema es saber en qué lugar de Europa está el olivo.

100'. Espainia / España

**G:** Paul Laverty

**A/R:** Anna Castillo, Javier Gutiérrez, Pep Ambròs, Manuel Cucala, Miguel Angel Aladren, Carme Pla, Ana Isabel Mena, María Romero, Paula Usero, Janina Agnes Schröder, Cris Blanco, Paco Manzanedo, Inés Ruiz, Aina Requena, Pia Stutzenstein

# YULI (2018)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**MARTXOAK 9, ASTEAZKENA**
9 DE MARZO, MIÉRCOLES
**17:00**

**MARTXOAK 10, OSTEGUNA**
10 DE MARZO, JUEVES
**19:30**

Carlos Acosta kubatar dantzariari buruzko filma, dantzako izar handi honen bizitzan zehar egindako bidaia: jatorrian zurientzat idatzitakoak izan arren balleteko paperik garrantzitsueneko batzuk interpretatu zituen lehenengo dantzari beltza, Houston Ballet edo Londresko Royal Ballet bezalako konpainietan aritua (azken horretan lehen dantzaria izan da 15 urte baino gehiagoz). Haurtzaro gogorrarekin hasi eta helduarora iritsi arteko ibilbidea da, eta azken etapako protagonista dantzaria bera da, nazioartean arrakasta eta aitorpen ugari jaso arren, sustraiak non dituen inoiz ahaztu ez duena.

---

Film sobre el bailarín cubano Carlos Acosta, un viaje temporal a través de su vida, leyenda de la danza y primer bailarín negro en interpretar algunos de los papeles más famosos del ballet, originariamente escritos para blancos, en compañías como el Houston Ballet o Royal Ballet de Londres (donde ha sido primer bailarín durante más de 15 años). Cuenta desde su dura infancia hasta su madurez, etapa que será protagonizada por el propio bailarín, quien, pese a su éxito y reconocimiento internacional, nunca olvidó sus orígenes.

115'. Espainia / España
**G:** Paul Laverty
**A/R:** Carlos Acosta, Santiago Alfonso, Keyvin Martínez, Edison Manuel Olvera, Laura de la Uz, Yerlin Pérez, Mario Elías, Andrea Doimeadiós, Cesar Domínguez, Carlos Enrique Almirante.

# LA BODA DE ROSA (2020)

## Z/D: Icíar Bollaín



**MARTXOAK 16, ASTEAZKENA**
16 DE MARZO, MIÉRCOLES
**17:00**

**MARTXOAK 17, OSTEGUNA**
17 DE MARZO, JUEVES
**19:30**

45 urte betetzear dela, Rosa ohartu da beti besterentzako bizi izan dela eta alde egitea erabakiko du, dena utzi eta botoi nuklearra sakatzea. Bere bizitzaren jabe izan eta bere ametsa bete nahi du: negozio propioa izatea. Baina laster ohartu da aitak, senideek eta alabak beste plan batzuk dituztela Rosarentzat, eta bizimodua aldatzea ez dela hain erraza, familiaren gidoian ez baldin badago aldaketa hori.

---

A punto de cumplir 45, Rosa se da cuenta de que ha vivido siempre para los demás y decide marcharse, dejarlo todo y apretar el botón nuclear. Quiere tomar las riendas de su vida y cumplir el sueño de tener un negocio propio. Pero pronto descubrirá que su padre, sus hermanos y su hija tienen otros planes, y que cambiar de vida no es tan sencillo si no está en el guion familiar.

100'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín, Alicia Luna
**A/R:** Candela Peña, Sergi López, Nathalie Poza, Paula Usero, Ramón Barea, Xavo Giménez, María Maroto, Eric Francés, Lucía Poveda, María José Hipólito.

# MAIXABEL (2021)

**Z/D: Icíar Bollaín**



**MARTXOAK 23, ASTEAZKENA**
23 DE MARZO, MIÉRCOLES
**17:00**

**MARTXOAK 24, OSTEGUNA**
24 DE MARZO, JUEVES
**19:30**

Maixabel Lasak 2.000 urtean galdu zuen senarra, Juan María Jauregi, ETAk erailda. Handik hamaika urtera ezohiko eskari bat jaso zuen: hiltzaileetako batek Maixabelekin hitz egin nahi du Langraizeko (Araba) espetxean, han ari baita kondena betetzen talde terroristarekin zituen loturak bertan behera utzi ondoren. Zalantza ugari eta min handia izan arren, Maixabelek onartu egingo du hamasei urte zituenetik bikote izan zuen odol hotzez erail zutenekin aurrez aurre egotea.

---

Maixabel Lasa pierde en el año 2000 a su marido, Juan María Jaúregui, asesinado por ETA. Once años más tarde, recibe una petición insólita: uno de los asesinos ha pedido entrevistarse con ella en la cárcel de Nanclares de la Oca / Álava), en la que cumple condena tras haber roto sus lazos con la banda terrorista. A pesar de las dudas y del inmenso dolor, Maixabel accede a encontrarse cara a cara con las personas que acabaron a sangre fría con la vida de quien había sido su compañero desde los dieciséis años.

115'. Espainia / España
**G:** Icíar Bollaín, Isa Campo
**A/R:** Blanca Portillo, Luis Tosar, Urko Olazabal, María Cerezuela, Arantxa Aranguren, Mikel Bustamante, Bruno Sevilla, Jone Laspiur, David Blanka

Zinematekaren programazioa Mediateka BBK-ra zabaldu da, Icíar Bollaínren lanari buruzko filmak eta liburuak kontsultatu eta maileguan eskatu ahal izateko.

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestado películas y libros en torno a la obra de Icíar Bollaín.

## BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA



**Icíar Bollaín, Julio Llamazares**

### CINE Y LITERATURA: REFLEXIONES ALREDEDOR DE FLORES DE OTRO MUNDO

Páginas de Espuma / 2000

Iciar Bollaínek eta Julio Llamazares nobelagileak beren sormen-esperientzia azaltzen dute, Flores de otro mundo gidoian kolaboratu ondoren. Gidoi zinematografiko baten eraikuntzari buruzko gogoetak, eta aliantza artistiko batean parte hartzen duten faktoreak, pentsamendua eta errealitateaz duen ikuspegia.

Iciar Bollaín y el novelista Julio Llamazares retratan su experiencia creativa tras su colaboración en el guion de Flores de otro mundo. Reflexiones acerca de la construcción de un guion cinematográfico, y los factores que intervienen en una alianza artística, su pensamiento y su visión de la realidad.




**Icíar Bollaín, Tatiana Rodriguez**

### MATAHARIS

Ocho y Medio / 2008

Icíar Bollaínek zuzendutako eta Najwa Nimri, Tristán Ulloa, María Márquez eta Nuria González aktoreak, besteak beste, protagonista dituen filmaren gidoia.

Guion cinematográfico de la película dirigida por Icíar Bollaín y protagonizada por Najwa Nimri, Tristán Ulloa, María Márquez y Nuria González, entre otros.




**José Luis Noriega Sánchez**

### ICÍAR BOLLAÍN

Cátedra / 2021

"Icíar Bollaínen zinemak bere marka du, Ken Loach-en arrastoaren araberako zinema soziala, injustiziaren aurkako borroka anarkista, zapore gazi-gozoa duena, beti zuntz sentibera ukitzen duena, arraza-, atsegin eta indarkeria-iberismoaren aurrean" (Manuel Vicent).

"El cine de Icíar Bollaín tiene una marca propia, un cine social según la huella de Ken Loach, una lucha anarquista contra la injusticia atemperada por un sabor agridulce, que siempre toca una fibra sensible, frente al iberismo racial, agrio y violento" (Manuel Vicent).

Eta gainera, Mediatekan ere aurki dezakezu
Y además también puedes encontrar en la Mediateka:

*Hola, estás sola? De Icíar Bollaín*, Cecilia Vera (Fundamentos / 2003)

*Cambio de agujas*, Icíar Bollaín (Fundación Borau / 2009)

*La representación de las mujeres en el cine y la televisión contemporáneos* (Laertes / 2010)

*Más fotogramas de género: representación de feminidades y masculinidades en el cine español de los 90*, María Castejón Leorza (Síndice / 2015)

*Mujeres de cine: la mirada de diez directoras españolas*, Enrique Chuvieco (Rialp / 2014)

*Versión original: 300 óperas primas* (Universidad de Extremadura / 2021)

**LABURDURAK / ABREVIATURAS**

**Z/D:** Zuzendaritza / Dirección | **A/R:** Aktoreak / Reparto | **G:** Gidoia / Guion |

**SARRERAK / ENTRADAS:** **5€ [4€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**

Zinemako txarteldegian eta golem.es / Taquillas del cine y golem.es

**INFORMAZIO ERABILGARRIA**

- Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira (JB, Gaztelania)..
- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik azkunazentroa.eus-en jakinarazita.
- Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.

**INFORMACIÓN ÚTIL**

- Todas las proyecciones son en versión original (VO, Castellano).
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en azkunazentroa.eus
- Te recomendamos que te lleves a casa este programa.

**GOGOAN IZAN**
**RECUERDA**



Zure maskara erabili

Usa tu mascarilla




Sartzeko, EBKO COVID ziurtagiri digitala aurkeztu behar da

Para acceder es necesario presentar el certificado COVID digital UE

Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Azkuna Zentroarekin:
Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Azkuna Zentroa:

**azkunazentroa.eus**
**info@azkunazentroa.eus**
**PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO**
**944 014 014**

LG-DL: BI-129-2016

# AZKUNA ZENTROA, ZINEMAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOAREN LEKUA BILBON

# AZKUNA ZENTROA, EL LUGAR DEL CINE Y EL AUDIOVISUAL EN BILBAO

## Zinemateka

## Tractora Koop. E.: Kinu

Kolektibo Egoilarrak Azkuna Zentroan programa / Programa de Colectivos Residentes en Azkuna Zentroa

## Zinemaldia

## Zinegoak

Bilboko Nazioarteko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia / Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbotrans de Bilbao

## FANT

Bilboko Zinemaldi Fantastikoa / Festival de Cine Fantástico de Bilbao

## Zinemagileen artean

Emakumeek egindako zinemaren karabana / Caravana de Cine realizado por Mujeres

## Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia / Festival Internacional de Cine Invisible

## Zinemakumeak gara!

Emakumeek zuzendutako zinema-erakustaldia / Muestra de cine dirigido por mujeres

## Zinebi

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak / Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao

## Cines Golem Alhóndiga Zinemak

Informazio gehiago: **zinemAZ. Azkuna Zentroko zinema baliabide gida**. Eskatu Az Infon edo azkunazentroa.eus-en deskargatu

Más información: **zinemAZ. Guía de recursos de cine de Azkuna Zentroa**. Pídela en Az Info o descárgala en azkunazentroa.eus

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

azkunazentroa.eus